

## Karen Uhlenbeck matematikariak jaso du 2019ko Abel saria

Karen Uhlenbeck matematikari estatubatuarrak "ekuazio diferentzial partzial geometrikoetan egindako ikerketak" saritu ditu 2019ko Abel sariak; hala nola, gaugeren teorian eta sistema integragarrietan egindako ekarpenak, Norvegiako Zientzia eta Letren Akademiak adierazi duenez. 2003ean banatzen hasi zirenetik, Abel saria jasotzen duen lehenengo emakumea da Uhlenbeck.



Karen Uhlenbeck matematikaria. ARG.: Andrea Kane/Institute for Advanced Study.

Analisi geometriko modernoaren sortzailetzat hartua izan da. Akademiaren iritziz, haren ikuspegia aintzat hartu izanak ekarri ditu azken 40 urteotako aurrerakuntzarik ikusgarrienak matematikan. Besteak beste, matematikaren eta fisikaren arteko muga aurkikuntza garrantzitsuak egin ditu, eta bi esparruotako egungo eredu geometrikoak sortzeko oinarriak ezarri dituela adierazi dute.

Matematikari emakumezkoen egoera azpimarratu izan du askotan Uhlenbeckek. Hauxe aitortu zuen, jakinik emakume askorentzat inspiragarri izan zitekeela: "Mundu guztiak daki pertsona bat arrakastatsua izango dela, baldin eta adimentsua, dibertigarria, ederra eta dotorea bada. Baina zure inperfekzio guztiekin ere arrakasta lor dezakezu. Nik urte asko behar izan nituen horretaz jabetzeko". ●

## Opioideen krisiari aurre egiteko neurri berriak iragarri ditu FDAk

Opioideen krisia AEBek izan duten "osasun-hondamendirik handienetako eta konplexuenetako bat" dela adierazi du AEBetako Elikagaien eta Sendagaien Administrazioak (FDA), eta aitortu du orain arte hartutako neurriak eskasak eta, batzuetan, desegokiak izan direla. Hortaz, aurten beste neurri batzuk martxan jarriko ditu FDAk.

Aipatzen duen lehen neurria opioideen paketa-tzea aldatzea da; alegia, tratamenduari egokitu-tako dosi eta neurrian ematea sendagaiak, adikzioak eta gaindosiak saihesteko. Gainera, botikak hartzeko modu berriak ere probatzeko asmoa du. Mina kentzeko botika ez adiktiboek ikerketa ere bultzatuko du.

Bestalde, gaindosiak eragindako heriotzak saihesteko, naloxona merkatuan libre saltzeko modua aztertuko du. Izan ere, orain naloxona errezeta bidez baino ezin da lortu, eta horrek, batetik, zaildu egiten du behar duten guztiengana iristea, eta, bestetik, estigma sortzen du.



ARG. Artxibokoa.

Legez kanpoko erabilerari aurre egiteko, berriz, merkaturatzea eta banatzea eragozteko neurriak indartuko ditu, baita Internet bidez ere. Adibidez, Googlek dagoeneko ez ditu indexatuta opioideak saltzen dituzten guneak. ●